

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2021-05-28(e)(a)n, OSOKO BILKURAk erabagi hau hartu dauela:

## 15. - BASOEN INGURUKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA.

Udal Osoko Bilkurak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez, ONARTU da hurrengo adierazpen instituzionala:

Klima-aldaketan aurkako borroka gizateriak gainditu beharreko ingurumen arloko erronka handia da. NBEk jakinarazi duenez, hil ala biziko une honetan, klima-aldaketaren ondorioak maila globalekoak dira, egundo ez bezalako tamaina hartu dutelarik. Klima aldaketaren kontrako borroka mundu osoko erronka bat da, guztioi eragiten diguna konpromiso pertsonal eta kolektiboak eskatzen dituena. Berotze globala errealitate ukazina da eta frogatuta dago hori arduraz kudeatzeak onurak ekarriko dituela ingurumenarentzat eta pertsonen osasunarentzat.

Borroka honetan Nazio Batuetako Batzar Nagusiak *"Garapen jasangarrirako 2030 agenda"* onartu zuen, urte hauetako gobernu programak izan behar dituzten helburuak markatuz. Bermeoko Udalak, bere aldetik be, ingurumenaren zaintzaren bidean aspaldi hasi zen Udalsarea 21 ekimenean parte hartuz.

Euskal Autonomia Erkidegoan eukalipto azalera 4 aldiz biderkatu da azken hiru hamarkadetan eta gure herriko mendietan ere, eukalipto azalera gero eta handiagoa da eta pinuen gaixotasunaren ondorioz pinuak eukaliptoengatik ordezkatzeko doaz eta eukaliptoak okupatutako lurzorua gero eta zabalagoa da.

Eukalipto zabaltzeak kezka sortu du bai Eusko Jaurlaritzan eta baita ere Bizkaiko Foru Aldundian, azken egunotako berria da Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko diputatuak datozen hilabeteetarako lehentasunen artean eukalipto landaketa mugatzea eta Bizkaiko basoetan espezie autoktonoen presentzia areagotzeko proiektuari bultzada ematea dagoela.

Testu inguru honetan Bermeoko Udalak adierazi gure du *Garapen Jasangarrirako Helburuekin* bat egiten duela eta 15. Helburua: "basoak modu iraunkorrean kudeatzea, desertifikazioaren aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta biodibertsitatearen galera inbertitzea" lortze aldera hurrengo konpromisoak hartzen



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E50006EA6D00G3S5N8I3H1K7

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 07/06/2021  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 08/06/2021  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/06/2021  
07:57:34

EXPEDIENTE ::  
2021IDA\_ERA\_0126

Fecha: 25/05/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unitidea:

Erregistro nagusia

CSV: 07E50006EA6D00G3S5N8I3H1K7



dituela:

- Herritarren artean basogintza iraunkorraren garrantziaren kontzientziaioa sortzeko ekintzak sustatuko ditu.
- Bermeoko Udalak mendi publikoetan, bereziki udalaren jabetzakoetan, baso kudeaketa iraunkorrago baten alde egingo du, jarduera eredugarriak bultzatuko ditu eta eukaliptoen azalera murriztu eta bertako baso anitzak sustatuko ditu.
- Bermeoko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari adieraziko dio, Bermeoko lurretan baso politika iraunkorragoa egiteko konpromisoa eta lankidetzarako borondatea.
- Bermeoko Udalak baso jabe pribatuei baso kudeaketa iraunkorrago baterako informazioa eta aholkularitza eskainiko die.
- Beste administrazioekin (Eusko Jaurlaritza, URA, Urdaibai Patronatua, Bizkaiko Foru Aldundia..) elkarlana sustatuko du.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretiaz.

*Orrri-oinean sinatzailea eta data*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E50006EA6D00G3S5N8I3H1K7

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 07/06/2021  
 ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 08/06/2021  
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/06/2021  
 07:57:34

EXPEDIENTE ::  
 2021IDA\_ERA\_0126

Fecha: 25/05/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

CSV: 07E50006EA6D00G3S5N8I3H1K7

